

**LANEKO EZBEHAR-TASA
EUSKAL HERRIAN
2018**

O. SARRERA

2018an laneko ezbehar-tasak eutsi egin dio 2012an hasitako goranzko joerari, eta egoera are larriagoa da azken urteetan. Jarduera ekonomikoa areagotzeak ez luke berekin ekarri behar ezbehar-tasa igotzea; alabaina, mezu ofizialek ezkutatu egiten badute ere, tasak gora egiten jarraitzen du, lan-baldintza gero eta prekarioagoen ondorioz. Soldata kaskarrak, lanaldi partzialeko gehiegizko kontratazioa eta justifikaziorik gabeko behin-behinekotasuna erabiltzen ditu patronalak, lan-erreformen babesean. Ondorioz, eskubideak etengabe galtzen dira eta gora egiten dute laneko istripu eta gaixotasunek. Argi dago segurtasuna eta osasuna bigarren mailan gelditzen direla enpresan. Ez dago prebentzioaren kulturarik eta lehentasuna ematen zaie beti ekoizpenari eta irabazi ekonomikoari, langileen osasun- eta bizi-baldintzen gainetik.

Laneko istripu eta gaixotasunen erregistroak gora egiten du urtez urte, eta,aldi berean, erakunde publikoak pozik daude krisi-garaian sortutako ezbehar-tasa murriztu egin delako eta estatuaren aldean datuak hobekiak direlako. Azken urteetan tasa horrek gora egitearen arrazoia biztanleria aktiboaren gorakada dela esaten dute, aipatu ere egin gabe prebentzio-politikek porrot egin dutela, eta patronalaren diskurtso lazgarria berenganatuz. Argudio horiek onartezinak dira; izan ere, osasun-kalteak saihestu daitezke neurri eraginkorrek aplikatuta. Hori egin beharrean, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko kontzertazio sozialaren eremuan sakontzen dute eta sistematikoki uko egiten diote baliabide publikoak enpresa eta lantokietan esku hartzeko erabiltzeari. Bien bitartean, urtean berrogeita hamar pertsona baino gehiago hiltzen dira Euskal Herrian laneko istripuen ondorioz, eta biktimen kopurua areagotu egiten da lanarekin lotutako gaixotasunen kasuan.

1. ESTADISTIKA OFIZIALAK

1.1. EAE

Osalanen datuen arabera, 2018ko urtariletik abendura bitartean baja hartzea ekarri zuten laneko 35.786 istripu egon ziren, hots, aurreko urteko aldi berdinean baino % 1,50 gehiago. Istripu horiei baxarik gabeko beste 47.063 gehitu behar zaizkie; hortaz, laneko istripuak 82.849 izan ziren guztira. Datu absolutuak begiratzuz gero, % 1,24ko beherakada egon da, azken urtean baxarik gabeko istripuen kopuruan egon den jaitsieraren ondorioz, batez ere Bizkaian (-1.065).

Baja hartzea ekarri zuten istripuetatik, 33.972 istripu berriak izan ziren (+% 1,2) eta 1.814 berrizkaturak (+% 7,2). Istripu horietatik 30.115 lanaldiaren barruan gertatu ziren, eta 3.857 *in itinere*. Baja hartzea ekarri zuten istripuek gora egin zuten Araban eta Gipuzkoan.

Istripuen larritasunari dagokionez, azken urtean 33.728 istripu arin eta 207 larri erregistratu dira, eta 37 kasutan kaltetua hil egin da. Hortaz, areagotu egin dira istripu arinak (% 1,19) eta larriak (% 4,02), eta hildakoak izan dituzten istripuen guztizkoak % 5,63 egin du gora (+5).

2018ko LANEKO ISTRIPUAK

	Bajarik gabe	Arinak	Larriak	Hildakoekin	GUZTIRA
Araba	10.113	6,141	58	6	16.318
Bizkaia	22.059	17,389	83	22	39.553
Gipuzkoa	14.891	10,198	66	9	25.164
EAE	47.063	33.728	207	37	81.035(*)

(*) Erregistratutako 1.814 berrizkaturak gehituta, guztira 82.849.

www.osalan.euskadi.eus

2017ko LANEKO ISTRIPUAK

	Bajarik gabe	Arinak	Larriak	Hildakoekin	GUZTIRA
Araba	9.944	5.968	51	3	15.966
Bizkaia	23.124	17.416	83	17	40.640
Gipuzkoa	15.566	9.949	65	12	25.592
EAE	48.634	33.333	199	32	82.198(*)

(*) Erregistratutako 1.692 berrizkaturak gehituta, guztira 83.890.

www.osalan.euskadi.eus

Bestetik, intzidentzia-indizeak kontuan hartuta (baja hartzea ekarri zuten lan-istripuak, lanaldiaren barruan gertatutakoak, 1.000 langileko), 0,35 puntuko beherakada txiki bat egon da (-% 0,92) 2017aren aldean. Probintziak, indize honek behera egin du Bizkaian (-% 1,92) eta Gipuzkoan (-% 0,03); Araban, berriz, gorakada txiki bat izan du (+% 0,58). Sektoreen arabera, industria nabarmentzen da, 0,41 eta 1,33 punturekin Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren (nagusiki eraikuntzan). Araban, berriz, tasa % 8,46 igo da aurreko urtetik.

2018ko INTZIDENTZIA-INDIZEAK

	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	GUZTIRA
Araba	43,30	58,65	96,92	29,15	39,66
Bizkaia	93,08	71,10	84,82	28,11	38,81
Gipuzkoa	71,90	63,77	80,32	24,12	35,47
EAE	73,23	65,61	85,10	27,00	37,87

www.osalan.euskadi.eus

2017ko INTZIDENTZIA-INDIZEAK

	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	GUZTIRA
Araba	47,02	59,83	89,36	28,65	39,43
Bizkaia	91,31	70,69	87,35	28,96	39,57
Gipuzkoa	79,03	62,44	82,59	24,34	35,48
EAE	75,58	65,29	86,27	27,44	38,22

www.osalan.euskadi.eus

1.2. NAFARROA

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren (NOPLOI) 2018ko behin betiko datuen arabera, baja hartzea ekarri duten 9.824 lan-istripu gertatu dira; horietatik 9.744 arinak izan dira, 70 larriak eta 10etan hildakoak egon dira. Guztira, 8.630 istripu lanaldiaren barruan gertatu dira, 225 langile autonomoei dagozkie eta 969 *in itinere* gertatu dira. Horiei baja hartzea ekarri ez duten 13.656 istripu eta 521 berrizkatura gehitu behar zaizkie. Hala, guztira 24.001 istripu gertatu dira.

LAN-ISTRIPUEN KONPARAZIOA (2018-2017)

	Bajarik gabe	Arinak	Larriak	Hildakoekin	GUZTIRA
2018	13.656	9.744	70	10	23.480 (*)
2017	13.806	8.872	61	11	22.750 (**)

(*) erregistratutako 521 berrizkaturak gehituta, guztira 24.001

www.navarra.es

(**) erregistratutako 490 berrizkaturak gehituta, guztira 23.240

Ondorioz, laneko istripuen guztizko kopuruak % 3,2 inguru egin du gora iaztik. Istripu larriek % 14 baino gehiagoko gorakada izan dute eta arinek ia % 10ekoa. Hildakoak izan dituzten istripuak, berriz, bat gutxiago izan dira. Aipatzekoa da balio erlatiboek ere gora egin dutela. Intzidentzia-indizeak (baja hartzea ekarri zuten lan-istripuak, lanaldiaren barruan gertatutakoak, 1.000 langileko) % 5 baino gehiago egin du gora, eta nabarmendu behar da igoera handiena industrian eta, batez ere, eraikuntzan egon dela. Jarraian ikus daiteke azken bi urteetako indize horien arteko erlazioa.

INTZIDENTZIA-INDIZEEN KONPARAZIOA (2018-2017)

	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	GUZTIRA
2018	51,5	59,5	79,1	23,9	37,0
2017	51,6	56,6	70,7	22,9	35,2

1.3. ELAren BALORAZIOA

Ezbehar-tasaren inguruko estatistika ofizialen balorazioa egitean, nabarmendu behar da, batik bat, ez dutela inola ere islatzen gure lurraldetako enpresa eta lantokien benetako errealitatea.

Laneko istripuen eta gaixotasunen azpierreregistro bat dago, gero eta handiagoa dena. Horren arrazoi nagusiak hauek dira:

-Iruzurra. Enpresek istripuak ezkututzen dituzte, erantzukizunak saihesteko. Iruzurra dago istripuak jakinaraztean: larrienak arin gisa erregistratzen dira eta beste batzuk ez dira deklaratu ere egiten.

-Mutualitateak. Gero eta botere handiagoa dute, eta rol oso esanguratsua dute laneko istripuak eta gaixotasunak ezkutatzeko orduan. Enpresekin ados jartzen dira eta legez kontrako praktikak erabiltzen dituzte kostuak murrizteko eta ezbehar-tasari buruzko datuak itxuraldatzeko.

-Babesgabetasuna. Kaltetu askok eta askok ezin dituzte laneko istripuak eta kalteak jakinarazi, lan-baldintza prekarioak dituztelako eta beren enplegua galtzeko edo errepresaliak jasateko beldurra dutelako.

Bestetik, istripu jakin batzuk estatistika ofizialetatik kanpo uzten dira oraindik ere, hala nola garraiolariak edo errepidean lan egiten duten langileak jasaten dituztenak, zeinak trafiko-istripu gisa erregistratzen baitira. Nafarroan ere datu ofizialetatik kanpo uzten dira istripu jakin batzuk, hala nola kontingentzia profesionalak estali gabe dituzten autonomoek edo lurraldetik kanpoko enpresetara atxikitako langileak jasaten dituztenak. Horrek esan nahi du urtero-urtero laneko istripu ugari geratzen direla Osalanen eta NOPLOIren erregistroetatik kanpo.

2. ELAren ESTATISTIKAK

2018an, ELAk laneko istripuagatiko 67 heriotza kontabilizatu ditu Hego Euskal Herrian; horietatik 46 EAEn eta 21 Nafarroan. Azken sei urteetako biktima kopuru handiena da, eta % 20 baino gehiago egin du gora 2017tik.

Aipatzekoa da Bizkaian eta Nafarroan egon den hildakoen gorakada, % 45 eta % 61 egin baitu gora, hurrenez hurren (+9, +8). Gipuzkoan % 43 murriztu da kopurua iaiztik, eta Araban antzekoa izan da (+1).

HILDAKOAK ERAGIN DITUZTEN ISTRIPUAK

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	GUZTIRA
2018	6	30	10	21	67
2017	5	20	16	13	54

www.ela.eus

ELAren estatistikak ez datoz bat, inola ere, iturri ofizialekin; azken horien arabera, 2018an 37 hildako egon ziren EAEn eta 10 Nafarroan (% 30 inguruko azpierregeroa hildako guztiei dagokienez). Datu hori larritasun gutxiagoko istripuetara lekualdatuz gero, pentsatzekoa da aipatutako azpideklarazioa askoz ere handiagoa izango dela.

ELAren datuen arabera, EAEn hildako pertsonen kopurua % 7 inguru areagotu da aurreko urtetik (+3); Nafarroan, berriz, hildakoak eragin dituzten istripuen gorakada % 62 baino gehiagokoa izan da (+8).

Hona hemen ELAren arabera hildakoak izan dituzten istripuen azterketa zehatzago bat:

1. % 73,84 istripu traumatikoak izan dira; horietatik % 63,63 kolpe edo harrapatzeengatik gertatu dira, eta % 36,36 altueratik erortzeengatik. Aipatzekoa da 5 heriotza itota gertatu direla, eta beste 3 intoxikazioengatik.
2. Sektoreka, garraioak du intzidentzia handiena: guztizkoaren % 24,61. Horren atzetik ditugu zerbitzuen sektorea (% 23,07), eraikuntza (% 21,54) eta industria (% 21,54).
3. Istripu ez-traumatikoak guztizkoaren % 26,15 dira, eta areagotu egin dira azken urtean.
4. *In itinere* istripuak % 10,77 izan dira, iaz baino gutxiago, eta aipatzekoak dira Nafarroan azken bi urteetan gertatu diren 8 heriotzak.
5. Esanguratsua da, halaber, *in misio* istripuen kopurua (% 16,92); horien ia % 82 garraioaren sektorean gertatu dira.
6. Hildakoen ia % 30ek azpikontrata batean egiten zuten lan, eta sei autonomoak ziren.

Hildakoak izan dituzten istripu traumatikoen portzentaje altu horrek argi uzten du sektore horretan laneko segurtasunik eza nagusi dela. Horren harira, azpimarratzekoa da, beste behin ere, hildako gehienak kolpeen, harrapatzeen eta altueratik erortzearen ondoriozkoak izan direla. Berrito ere gora egin dute garraioaren sektorean hildakoek, baita lehen sektorekoek ere.

Bestetik, istripu ez-traumatikoak ere asko areagotu dira; *in itinere* istripuak, berriz, antzeko mantendu dira eta gora egin dute *in misio* istripuek.

Azpikontratazioa sektore eta lurralde guztietara zabaltzen den heinean, okerrera egiten dute langileen lan-baldintzek, eta horrek berekin dakar laneko istripuak jasateko arriskuak gora egitea.

3.- LANEKO GAIXOTASUNAK

Laneko gaixotasunen estatistika ofizialek ez dute inola ere islatzen benetako errealitatea. Gaixotasun horien azpierregeroa eskandalagarria da; istripu asko eta asko ez dira deklaratu, eta beste asko gaixotasun arrunt gisa kalifikatu dira.

Puntu honetan, gogoratu behar da mutualitate patronalek zer-nolako rola duten azpideklarazio horretan. Beren jardunbide desegokiak albo batera utzita, eta laneko gaixotasunen parteak jakinarazteaz arduratzen diren heinean, mutualitateek sistematikoki ukatzen dute patologia lanaren ondoriozkoak direla eta osasun-sistema publikora bideratzen dituzte. Laneko gaixotasunak deklaratzeko prozesua oztopatzeko estrategiarekin aurrera jarraitzen dute, biktimak eta beren senideak hainbat urtez luzatzen diren prozedura judizialak igarotzera behartuz eta beren sufrimendua beharrik gabe okerragotuz.

Bestetik, berriro ere kritikatu behar dugu EAEn laneko gaixotasunen susmoak jakinarazteko sistema ez dela eraginkorra, ez prebentzio-zerbitzuek eta osasun-sistema publikoak jakinarazpena egiteko garaian, ezta Osalanek jakinarazpen hori kudeatzeko garaian ere. Ildo horretan, borondatez deklaratzeko sistemen jakinarazpen-indizeak altuagoak dira nahitaezko sistema horretan jasotakoak baino.

Horren adibide da Nafarroako Gertakari Zentinelak Jakinarazteko Sarea. Urtero, Osasunbideako lehen arretako medikuek lanarekin lotutako gaitz muskuloeskeletiko eta buruko patologia ugari deklaratu dituzte, eta indizeak estatukoak baino askoz ere altuagoak izaten dira. Alabaina, Gizarte Segurantzak Madrileko Gobernuaren mende egoten jarraitzen duen bitartean, deklaratuak gaixotasunen azken emaitzak oso mugatuak izango dira.

3.1. EAE

2018an, azkenean laneko istripu edo gaixotasun arrunt gisa kalifikatutakoak kenduta, laneko gaixotasunen 3.278 parte jakinarazi ziren EAEn. Horien % 50 Bizkaian izan ziren (1.643); atzetik daude Gipuzkoa, 1.174 kasurekin, eta Araba, 461 kasurekin. Sektoreen arabera, industria da patologia gehien erregistratu dituen (% 53,45) eta horren atzetik zerbitzuen sektorea (% 39,41).

2018ko LANEKO GAIKOTASUNAK

	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	GUZTIRA
Araba	9	213	13	226	461
Bizkaia	16	892	118	617	1.643
Gipuzkoa	3	647	75	449	1.174
EAE	28	1.752	206	1.292	3.278

www.osalan.euskadi.eus

Kontuan hartuta 2017. urtearen amaieran laneko gaixotasunagatik 3.101 parte erregistratu zirela, % 5,70 egin du gora jakinarazpenen kopuruak azken urtean (+177). 2018an guztira jakinarazitako gaixotasunetatik, ia erdiak baja hartzea ekarri dute. Aipatzeko da patologia jakin batzuek intzidentzia handiagoa dutela sektore feminizatuetan; esaterako, gaitz muskuloesketikoekin eta agente biologikoekin lotutakoekin, bereziki zerbitzuen sektorean eta lehen sektorean.

LANEKO GAIKOTASUNEN KONPARAZIOA (2018-2017)

EAE	Bajarekin	Bajarik gabe	GUZTIRA
2018	1.511	1.767	3.278
2017	1.445	1.656	3.101

www.osalan.euskadi.eus

Agente kantzerigenoek sortutako laneko gaixotasunei dagokienez, oso deigarria da EAEko eta Nafarroako estatistika ofizialek ez dutela jasotzen horien inguruko jakinarazpenik. Kontuan hartuta datu estraofizialen arabera 34 pertsona hil direla 2018an amiantoarekiko esposizioagatik, argi dago gaixotasun horiekin lotuta egiten den azpierregeroa kontaezina dela.

Ilido berean, 2018ko abenduan 9.802 pertsona agertzen ziren Osalaneke eginiko amiantoarekiko esposizioa jasandako langileen fitxategian. Horietako gehienak Osakidetza osasun-zaintzarako programan inskribatuta daude, non lan-bizitza amaitu ostean segimendua egiten baitzaie eta dagozkien mediku-protokolo egokiak aplikatzen baitzaizkie.

Nafarroan ere amiantoarekiko esposizioan egon diren langileen erregistro bat dago 1998tik. Langile horien % 87 gizonak dira eta % 13 emakumeak, eta horiei ere lan-bizitzaren osteko zaintza egiten zaie Osasunbideako Pneumologia Zerbitzuaren eskutik.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, mundu osoko 125 milioi pertsona inguruk jasaten dute amiantoarekiko esposizioa beren lanpostuetan. Datu horiek oinarri hartuta, OMEk aurreikusten du datozen hamarkadetan urtean 107.000 pertsona hilko direla amiantoari lotutako patologien ondorioz. Espainian, mineral kantzerigeno horren ondorioz dagoeneko 40.000 pertsona hil direla kalkulatu da, eta datozen hamarkadetan beste hainbeste hilko direla.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak berak ezartzen duenez, lan-istripuen ondorioz hildako pertsona bakoitzeko 35 hiltzen dira laneko gaixotasunen ondorioz. Datuak kezkarriak eta onartezinak dira.

Ildo horretan, ELAk irmo eutsiko dio agente kantzerigenoekiko esposizioaren ondoriozko laneko istripuak deklaratzeko borroka judiziala sendotzeko erabakiari, eta pozik dago sindikatuko zerbitzu juridikoak berriki lotutako aldeko epaiengatik. Besteak beste, aipatzekoa da biriketako minbizia laneko gaixotasun gisa aitortu zaiola sindikatuko afiliatua izandako langile bati, zeina duela hilabete gutxi hil baita, silize kristalinoarekiko esposizioan lan egitearen ondorioz.

3.2. NAFARROA

2018an CEPROSS sistemaren bitartez laneko gaixotasunen 1.557 parte eman dira; horietatik % 49 industriaren sektorean izan dira, eta % 45 zerbitzuen sektorean.

2018ko LANEKO GAIXOTASUNAK

	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	GUZTIRA
2018	34	764	62	697	1.557

www.navarra.es

Guztira jakinarazitako parteetatik, % 47 baxarik eragin duten patologiei dagozkie, eta gainerako guztietan ez da baxarik hartu. Kontuan hartuta 2017an 1.419 jakinarazpen erregistratu zirela, % 10eko gorakada egon da laneko gaixotasunen guztizko kopuruan, eta portzentaje hori berdin mantendu da 2016tik.

LANEKO GAIXOTASUNEN KONPARAZIOA (2018-2017)

	Baxarekin	Baxarik gabe	GUZTIRA
2018	733	824	1.557
2017	687	732	1.419

www.navarra.es

4. ONDORIOAK

1. Euskal Herriko laneko ezbehar-tasaren egoera oso kezkarria da. Laneko istripuen guztizko kopuruak behera egin du, baina baxerik gabeko istripuen kopurua murriztu delako; aldiz, baja hartzea ekarri duten istripuek gora egiten jarraitzen dute lurralde guztietan, batez ere istripu larriek. Bien bitartean, administrazioak pozik daude krisi-garaian ezbehar-tasak behera egin duelako, eta ez dute aldaketarik egiten laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko politiketan. Onartezina da.

2. Ezbehar-tasak laneko prekaritatea eta enpleguaren kalitate txarra ditu oinarrian. Azpikontratazio-kate amaiezinak, lan-gainkargak, gehiegizko erritmoak, justifikatu gabeko lanaldi partzialak, enplegu-aniztasuna, laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza-gabezia, desinbertsioa... Horiek dira arazo sozial honen azpian dauden egiturazko faktoreetako batzuk.

3. Laneko istripuen estatistikek ez dute errealitatea islatzen. Gero eta istripu gehiago ez dira deklaratu, eta istripu larrienak ezkutatu edo arin gisa sailkatzeko ahalegina egiten da. Horrenbestez, erregistro ofizialen benetako adierazgarritasuna zalantzarria da oso.

4. Laneko gaixotasunei dagokienez, adierazi behar da gertatzen direnak baino askoz ere gutxiago deklaratu direla. Hala ere, datu ofizialetan ikus daiteke gora egin dutela eta, lanaren sexuagatiko bereizkeriak irauten duen heinean, kolektibo feminizatuek gaitz muskuloeskeletikoekin eta agente biologikoekin lotutako patologia gehiago izaten jarraitzen dute, nagusiki lehen sektorean eta zerbitzuen sektorean. Bestetik, laneko minbiziek ikaragarri egin dute gora eta horien irismena ukalezina da Europa mailan, baina oraindik ere gai hau bigarren mailakoa da administrazioentzat.

5.- EAEko eta Nafarroako erakundeek garatutako politika publikoen ondorioz egoera okerrera egiten ari da. Administrazioak laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan egiten duen gastu publikoa txiki-txikia da. Enplegatzaile gisa, murrizketen eta doikuntzen enpresari-logika neoliberalak aplikatzen jarraitzen du, eta, aldi berean, eskuragarri dauden baliabide urriak gehiegi irauten ari den kontzertazio sozialaren eredu luzatzerak bideratzen ditu, zeina ez baita batere eraginkorra.

6.- Lan-harremanak prekarioak dira, eta horrek eragin zuzena du langile-klasearen osasun psikosozialean. Ikusita eskakizunak gero eta handiagoak direla eta enpresek eta lantokiek gero eta babes gutxiago ematen dutela, arrisku psikosozialak kudeatzera bideratutako baliabideak ez dira nahikoak, nahiz eta arrisku horiek lehen mailako arazotzat jotzen diren aspalditik Europa osoan. ELAk berriro ere antzeman du gora egin dutela osasun mentalerako kalteek langile-klasean, eta gorakada horrek lotura zuzena duela laneko antolamendu-baldintzek okerrera egitearekin. Kalte horien artean daude, besteak beste, laneko jazarpenarekin eta sexu-jazarpenarekin lotutako zenbait kasu larri.

7. EAEko eta Nafarroko administrazioek ez dituzte laneko ezbehar-tasari aurka egiteko neurri erreal eta eraginkorrak hartzen. Sentsibilizazio- eta propaganda-ekintzez gain, argi dago ez dagoela enpresa eta lantokietan esku hartzeko borondaterik, esparru honi esleitutako baliabide urriek eta horien orientazioak erakusten duten moduan. Laneko istripu eta gaixotasunen kausen kontra borroka egiteko, beharrezkoa da patronalaren interesei aurka egitea. Bada, administrazioek uko egiten diote horri, lehiakortasuna aitzakiatzat hartuta eta lan-prekarietatea arlo guztietan zabal dadila onartuz, baita administrazioan bertan ere. Argi dago, beraz, administrazioak enpresarien interesen alde egiten duela.

5.- ELAren PROPOSAMENAK

ELAk behin eta berriro errepikatzen duen moduan, ezbehar-tasari aurka egiteko lan-prekarietateari aurre egin behar zaio, bere fronte guztietan. Ildo horretan, Gasteizko eta Iruñeko gobernuak eskatzen die jarduketa-plan bat ezartzeko, premiaz, zeinaren bidez laneko istripuak lehiaren, baliabideen eta esku-hartzearen ikuspegitik jorratuko baitira. Plan horrek, besteak beste, neurri hauek bildu beharko ditu:

1. Babeserako esparru propio bat sortzea, Gizarte Segurantzarako transferentzia barnean hartzen duena, mutualitateen esku-sartzeak jasan behar ez dituen sistema publiko bat garatzeko, eta iruzurra desagerraraztea laneko istripuak eta gaixotasunak deklaratu eta tratatzeko garaian.
2. Osalan/NOPLOI eta Lan Ikuskaritzako giza baliabideak Europako batezbestekoarekin parekatzea (gaur egun, % 60tik beherakoa), eta ikuskaritza-lanak egingo dituzten baliabide gehigarriak jartzea (Ertzaintza, Foruzaingoa).
3. Ikuskaritzak egiteko eskumena Nafarroari transferitzea, Parlamentuak onartutako adierazpen instituzionalari jarraikiz.
4. Laneko segurtasun eta osasunerako politika publikoetara bideratutako aurrekontu-lesleipena areagotzea (gaur egun beheranzko joera du). Gutxieneko zuzkidura bat ezartzea administrazio bertako esparruentzat.
5. Kontrol- eta segimendu-ekintzak egitea arrisku hauek dituzten enpresetan: altueratik erortzea, harrapatzea, kantzerigeno, mutageno, ugalketarako toxikoak diren agenteekiko esposizioa, eta arrisku psikosozialak. Ekintza horiek dira, besteak beste, araudia betetzen dela egiaztatzea, esposizioan aritzen diren langileen erregistroak egitea eta langileen osasuna zaintzea lan-bizitza amaitu ostean. Azken lege-aldaketen ondoren, premiazkoa da silize kristalinoarekiko esposizioan egon diren langileen zerrenda publikoak egitea.
6. Istripu larriak eta hildakoak dituztenak sortzen diren enpresen erregistroak argitaratzea urtero, eta istripu horien kausak eta erantzuleak ikertzea, horretarako epe

mugatuak zehaztuta.

7. EAEko eta Nafarroako errepide-sareko puntu beltzak desagerraraztea.

8. EAEn amiantoa desagerrarazteko plan bat idaztea, Nafarroako Parlamentuak onetsitakoaren ildo berean, baina hori gauzatzeko erreserba-funtsak sortuta. Amiantoaren biktimentzako konpentsazio funtsa sortzea EAE eta Nafarroan.

9. Lan-autoritateak segurtasun eta osasunari dagozkion eskakizunak egin dizkien enpresei lizitazio publikoetan parte hartzeko mugak jartzea. Azpikontratazio-kateak debekatzea, eta laneko arriskuen prebentziorako gutxieneko inbertsioak egiteko betebeharra ezartzea.

10. Nafarroako Gertakari Zentinelak Jakinarazteko Sarearen antzeko sistema bat ezartzea EAEn, laneko gaixotasunen azpideklarazioa murrizteko.